

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 146/2020 Foru Agindua, martxoaren 18koa. María José Perea Urteaga Ogasun Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea informazio publikoa eskuratzearen arloko eskaerak ebazteko eskumena**

“1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasunarena, Herritarren Parte-Hartzearena eta Gobernu Onarena, bere 35. artikuluko 1. idatz zatian ezartzen duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko dituzten haiexek izapidetu dituen sailaren titularrak, 32. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 91. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazio ahalmen edo eskudantziak aldundiaren beste organo batzuei eskuordetu ahalko zaizkie. Ildo beretik, arau horren 94. artikulua xedatzen du aukera dagoela diputatu nagusiaren eta foru diputatuen eskudantziak zuzendariei eskuordetzeko, salbu eta artikuluko horretan bertan aipatzen diren salbuespenak badaude; haietatik batek ere ez die eragiten hemen hizpide dugun gaiari.

Administrazio izapidetze eta kudeaketako eraginkortasun, arrazionalizazio eta efizientzia irizpideak kontuan hartuz, gomendagarria da Ogasun Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea zuzendaritza horretan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko eskumena.

Horregatik, administrazio efikazia eta azkartasunaren mesedetan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, ezarritako eskuordetze aukerak kontuan izanda, dagozkidan ahalmenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María José Perea Urteaga Ogasun Zuzendaritzaren titularrari eskuordetzea zuzendaritza horretan izapidetzen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ebazteko eskumena, zeinak araututa baitaude 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasunarena, Herritarren Parte-Hartzearena eta Gobernu Onarena.

Eskuordetze hori mugagabea izango da, lehenago ez bada ezeztatzen edo goragokoak ez badu bereganatzen esanbidezko ebazpen bidez.

Bigarrena. Eskuordetzea tarteko ematen diren informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenetan esanbidez azalduko da eskuordetzea tarteko eman direla, eta organo eskuordetze emaileak eman izan balitu bezala joko da.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.”

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 23a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*  
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

*Ogasun zuzendaria*  
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA